



MATRIKULA LIBREARI BURUZKO INFORMAZIOA 2017 – 2018 IKASTURTEA

1. SARTZEKO ESKAKIZUNAK

- Adina: 2018an 16 urte beteta izatea ezinbestekoa da.
- Hizkuntza: Hizkuntza berean, pertsona bakoitza eskola eta maila bakar batean matrikulatu ahal izango da araubide librean.

Norbaitek bi hizkuntza desberdinetan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bana egin beharko du.

2. MATRIKULA EGITEKO PROZEDURA ETA JARRAIBIDEAK

Matrikula internet bidez egin beharko da, <http://www.euskadi.eus/heo> web orrian sartuz.

Matrikula egiteko epea otsailaren 15eko 10:00etatik 28ko 13:00ak arte izango da.

Martxoaren 1eko 13:00ak arte dokumentazioa (prezio publikoaren salbuespena, familia ugaria, pasaportea...) aurkezteko epea izango da.

Martxoaren 5ean onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak eskolan eta web orrian argitaratuko dira. Onartuta izan ez direnen kasuan, baztertzearren arrazoia zehaztuko da.

Behin-behineko zerrenden kontra erreklamazioak aurkezteko epea martxoaren 7an amaituko da.

Martxoaren 9an onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak eskolan eta web orrian argitaratuko dira. Onartuta izan ez direnen kasuan, baztertzearren arrazoia zehaztuko da.

3. PREZIO PUBLIKOAK ETA ORDAINKETA

Hizkuntza eta maila bakoitzeko prezio publikoak
36,18 €

Salbuespen eta hobariak

- Maila orokorreko familia ugaria, %50ren beherapena
- Maila bereziko familia ugaria, kuota osoa salbuetsita.
- Era berean, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonen kuota guztia salbuetsita izango dute.

Ordainketa

Matrikula formalizatzeko dagokion prezio publikoa ordainduz egingo da Administrazioaren Ordainketa pasabidearen bidez ezarritako prozeduraren bat erabiliz, otsailaren 15eko 10:00etatik 28ko 13:00ak arte. Horretarako, <http://www.euskadi.eus/heo> web orrian sartu beharko da.

Posible izango da:

- on-line ordainketa (Internet bidez). Ordainketa Interneten egingo da kreditu-txartelaren edo banku elektronikoaren bidez.
- off-line ordainketa. Ordaintzeko errekerimenduaren agiria lortu behar da, eta agiri horrekin banketxe edo kutxazain automatiko batera joan beharko da ordaintzera.